

J. L. JAUREGI "JAUTARKOL". MENDEURRENEAN

Bere literaturagintzari zenbait ohar.

Juan San Martin



"Jautarkol" gaztea, eta zaharra 60 urte inguruan.

Errenderia, nere aurtzaro zorioneko seaska kutun-beroa: nere barrendik biotza igeska gaur zuregana pozez urturik dioa.

(Jautarkol)

Jose Luis Jauregi, "Jautarkol" izenpetzen zuen idazlea, Erreterian jaio zen 1896. urteko ekainaren 19an. Apez egin zen eta Euskal Herriko zenbait herritan bete zuen bere apaizgoa. Gazterik abiatu zen literaturagintzara, eta ordukoak ditugu bere emaitzarik gehienak, ipui eta olerkien alorra landuz. Gainera, bi jenero horietan zenbait sari jaso zituen: lehena Euskaltzaindiak sortu berrian eratu zituen lehiaketan *Egizko edertasuna* (1923) zeritzanarekin irabazia. Ondoren, 1926-35.

urteetan *Euskal Esnalea* eta *Argia* aldizkarietan eratu zituenez gainera Bedoñan "Loramendi"ren omenez antolatu zen hartan.

Nik, bere lehen berria Jose Artetxe zenaren *Caminando* (1947) zeritzan liburua irakurtzetik izan nuen, non zetorren berrogeita hamazazpigarren orrialdean "El poeta de Machinventa" izenburudun artikulua polita. Han agertzen zuen gure apeza bere bertsozko esanetan:

*Baseliza zarraren babes maitetsuan
lar ta intza darioten lau ormen barruan
Kanposantutxo bat lo daukat bazterrean
Ernio aurrez-aurre. Txindoki atzean.*

Non aitortuko zigun:

*Bakarkadeak artu nau bere altzoan
ta ixiltasuna daukat musuka ondoan.*

Gogoetazko olerkien esaldietan bere barnearen babespea aurkituko zuen gizona zen "Jautarkol":

*Urre kaiola, kabia baino
beroago, bai ote?*

Irakurketa hark eraman ninduen "Jautarkol"en lanak eza-gutzera. Gaur aspaldikotzat ditudan irakurgaiak, baina nekez ahaztu nitzakeenak.

Urte gutxira ezagutu nuen pertsonalki Zarauzko Itxaropena argitaletxean eta han bertan edo hiri hartako kaleetan zehar behin baino gehiagotan mintzatu ginen euskal literaturari buruz. Eta liburu zahar saltzaileetan ahalegindu nintzen bere liburuak aurkitzen.

1924an Donostian argitaratua genuen *Ipuiak*, bere hitz-lauzko lehen liburu, Txikiren irudiak edergarri zituela. Ordurako hogeita zortzi urte zituen egileak. Hiru ipuiez osatzen da, A. Damaso Intzakoaren hitzaurrez. Era honetan agurtzen zuen Aita Damaso zenak: "Euskeraz dagoalako, ez uste izan gero orri oritu ta zimelduen batzuek dituenik. Landare berri gazte ta mardul, bizitza oparo dariona da, lora-ontzi batean bezala ipinirik, liburutxo onetan dakartzuna". Ondotik jarraituko zuen esanaz: "Or dezu, ba, euskalduna, gure euskal iturriak ematen duten urik garbientakoa. Euskera garbi, baño erraza. Euskal esanera berarizkoa ta erritarra; baño irudimen bizi ta sutsuak bizi az betea". Hitzauzaren bukaeran honako hau dio: "Azkeneko biak irakurtzean Iturralde ta Suit edo Kanpion arrigarriaren idazkitxo bat irakurtzen ari gerala deritzaigu ta aiek erderaz bezin idazle bikain eta ugaria ikusi bear degula gure onetan amets egiten degu. Bekigu Jaunak!".

Lehen ipuia Gregorio Mujikaren lan saritu baten itzulpena eta bigarrena Jauregiren lumatikako Urka-mendi. Nire ustez, idatzi zituen ipui guzietan politena, bai kontaeraz eta baita egituraren aldetik ere. Zer esanik ere ez, euskara hizlaxo bizkorrez eta ulerterreza duela. Bere ondotik datorren hirugarrena, Erramon gudaria, motelago da. Ifarraldeko euskaldun bat, 1914-1918. urteetako Europako gerratean Verdun-en hain zoritxarrean eroria. Gertakariak baino gehiago, mutila eta bere familiaren arteko oinazeak adieraztean oinarritzen da.

Bigarren eta hirugarren ipui horiek berriz argitaratuko zituen Itxaropenaren Kuliska sorta hartan, Andre Joxepantoni zeritzan beste kontakizun bat gehituz eta lehengo izenburu berarekin, *Ipuiak* (1953). Baina gehitu zion hirugarren ipui hau ere moteltxo izaki. Gainera, badirudi, aurretikoei Aita Damaso Intzakoak edo euskararen aldetik ikuteren bat edo beste eman ziola, zeren estilo hobea goren jabe baitira. Dena dela, hizlaxo azkarra eta bizi zuen eta horregatik iruditu zitzaidan liburu atsegina. Garai haietan urri ziren horrelako irakurgaiak.

Edukiaren aldetik, esango nuke, hein batean, euskal herrixketan apezak nekazariei erakusten zieten moral arauen lekuko direla ipuiok. Horrelakoa baitzen bere gogoaren oparia, eta horren adierazgarri dugu honako bertso hau:

*Jaun Onak bekit
urte askotan
nere bizitz menditarra;
eza da neretzat
or beko griñen
naikeri-itsaso zakarra.*

Bigarren liburu 1929an Iruñean argitaratua, *Biozkadak* deritzan olerki bilduma izango zen. Zendoaren irudiak edergarri eta A. Damaso Intzakoaren hitzaurrez hau ere. Bere sentipenen bihozkadak dira, izenburuaren arabera. Batzuk ordea lehenago han eta hemen sarituak. Erromantiko kutsua gorabehera, lirika ere oparo nabari.

Bere apaizgoa zintzo beteaz nondik nora ibilia zen erakusten digute han-hemenka eten gabe beti olerkiari itsatsirik euskaldun jatorren tankerak azaltzen zaizkio. Eta, esan bezala, Intzako Damasoren hitzaurrea dugu edukiaren agergerri.

*Euskal-erria euskerik gabe...
bai Erri gaxoa...!
Masti orritsu ederra baina...
matsik gabekoa,
Loretegian il eta agortu
dan iturritxo.
Geok, Euskera t'oitura zarrok
uxatzen ai-gera,
txori lapurak garitik uxa
oi-diran antzera.*

Gurasoez ahaztu gabe, sorterrarentzat badu bertso politik "Errenderia, nere jaioterrari" eskaintzen dizkionetan, antzina-ko Oiarsoren oroitzapenak ekarriz.

Umezurtz eta eskale gaixo errukarriak ere bere sentipenean zituen. Mendietara ere bazihoan bere gogo, Aizkorri zein Aralar.

Erromantikotasun hori, Gustavo A. Becquer-i eskaintzen zizkionetan ez ezik liburuaren azkeneko "Alai ta pakean" delako olerkian nabari da, baina J.B. Elizanburu du horren eredu. Ifar Euskal Herriko idazleak irakurtzen zituenaren agergerriak ditugu, Erramon gudaria ipui hartan nabari duen bezala. Gaur egungo idazle askok ere hobe lukete Ifarraldera gehiago begiratuz ibiliko balira, gure literaturaren onerako.

Jauregik, inor gorrotatu gabe eskaini zituen bere maitasunezko bertsoak gure literatura alorren aberasgarri. Bestalde, beti alai aritu zen eta esakuntza egokiak hautatzen zekienaren agergarri dira "Zergatik?" olerki hasierakoak:

*Bere ezpainetan Jaunak jarri zun
marrubi mardul mardularen
gorria
ta algara alai ta irribar gozo
beti zerion iturri bizi
bizia.*

Garai haietan *Euskal-Esnalea*, *Argia*, *Yakintza*, *Euskera* eta abarren kolaboratu zuen. Gainera, 1922an, hizkuntzaren etorkizunaganako kezkak eraginik, gazteleraz euskararen batasunari buruzko iritziak argitaratu zituen Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian.

Aldi hartako idazlerik gehienengan bezala, anaiarteko gerrate samingarriak bere eragina izan zuen. Isilaldian iraun zuen, gerraondoko lehen urteetan euskaraz inork ezer idazteko aukerarik gabe. Berrogeigarren hamarkadaren azkenaldira liburu soil batzuk agertzen hasi ziren eta 1952. urtetik Zarauzko Itxaropena argitaldaria izan zen Kuliska sortarekin sail iraunkor bati eutsi nahi ziona. Patxi Unzurrunzagak bultzaturik, sorta hartako 4.alea zen "Jautarkol"en *Ipuiak* (1953).

Sorta berean 25-26. alea osatu zuen errenteriar jatorrak, *Xenpelar bertsolaria. Bizitza ta bertsoak* (1958) zeritzan liburuaraz. Aukeran etorri zitzaigun handik laster hasiko genituen bertsolari txapelketen pizgarri. Liburu egokia benetan Xenpelarren bizitzaz gainera bere bertsorik aipatuena kanta ahal izateko musika pentagrama erantsiz eman zizkigunak. Berebiziko abantaila izan zen hura. Oroitu ez ezik, oraindik gordea dut Basarrik "Mi atalaya montaña" sail hartan, urte bereko urriaren 18an eskaini zion goraipen egokia.

On zait gaurkoan beste errenteriar batek, nork eta Koldo Mitxelenak, urte berean *Egan* aldizkarian egin zion harreraren zati bat hemen birrargaratzea. Honela zion:

"Leen ere agertu izan du Jauregi jaunak Xenpelar'ganako joera. Berak ipiñi zion itzaurrea Makazaga'k Errenteri'an, urterik gabe, gerra-aurretik argitara eman zuen bertso-liburuari: ugoldeek ondatu zuten zoritxarrez gerturik zegoen bigarrena.

Badu gaiñera beste idazlan bat gutxienez gai ortaz: "Bertsolaria nor zaigun: Xenpelar eredu", *Yakintza*, 1935, 407-413 or.

"Ezta ori arrigarri errenteriar batengan, bai, ordea, olerkari batengan. Ederki adierazten du egilleak, ez alako bildur-antx bat agertu gabe, zergatik eztitugun ontzat artu bear bertso-berrien etsaien esanak, 134 eta urrengo orrialdeetan... Olerkari gain-gaiñekoa izango omen zen Xenpelar, egilleak dienez, eskolarik izan balu. Olerkaria, eztakit. Beste zerbait izango genduen agian: Quevedo'ren tankerako zain ta ezurra besterik etzuen prosalaria.

"Xenpelar'en bertsoetan zenbait uts, edo uts diruditekanak beintzat -eta barka, oker banabil-, ageri dira". Ondotik, *Egan* ale horren 241-242 orrialdeetan anitz xehetasun eman zituen Mitxelenak. Denak aipatzea luze joango litzaziguke eta jakin minez den irakurleak orrialde horietara jo beharko luke.

Aurrerantz honela jarraituko zuen Koldok: "Eztiote esandakoek ezer kentzen Jauregi jaunaren liburu ederrari eta eztaude ezer kentzekotan esanak. Zor larria diogu egilleari alde guztietatik onerako besterako izango ezten lana egin eta eskeiñi digulako..."

Xenpelar-zaleek badute orain bide erosoaren bertsoak irakurri ta buruz ikasteko. Makazaga'ren bilduma ezta erraz arkitzen; badira gaiñera Jauregi'renean an eztauden bertsoak: San Jose-ren zazpi doloreei eta Jesukristo'ren Pasioari jarriak. Salduko aal da liburu au merezi duen bezain laster, euskaldunen eta euskeraren onerako".

Jauregiren azken lanetarikoa dugu 1960.ean *Euskera* agerkarian Loramendiren olerkigintzari buruz eman zituen iritziak; bera bizi zen garaiari buruz-buru arituaz argitaratu zuen hura. Uste dut, oso oker ez banago, 1966an Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuela.

Baina azkenik, Camilo José de Cela-ren *Paskual Duarteren sendia* (1967) euskarara itzulia argitara eman zuen.

Luis Jauregi "Jautarkol" errenteriarra, 1971ko urtarriaren 2an hil zen Zarautzen. Baina bere hizkuntza eta Errenteria zituen beti bihotz eta oroitzapenean.

*Izkuntza ori zurea da-ta, zure koroiko
pitxi bikaña dezu-ta:
zure obenez bera iltzen ba-da, betiko dezu
zure izen ona galduta.*

.....
*Erri maitea...! Piztu, ba, piztu zure barruan
itxaropenaren sua...
Ez ote-dezu, antxen urruti ekusten zure
izar onaren kiñua...?*